



**MARIA VICTORIA JOARISTI OLARIAGA AND., OIARTZUNGO UDALAREN IDAZKARI BEZALA.**

ZIURTATZEN DUT: Udal Osoak 2011ko irailaren 28an egindako batzarraldian, ondorengo erabakia hartu zuela, beste batzuen artean:

**“OLALDE” ALT-4 H.A.I.REN URBANIZAZIO PROIEKTUAN SARTUTAKO OBRAK ESLEITZEKO PROPOSAMENA**

Udal Osoak 2011ko martxoaren 30ean egindako batzarraldian, OIARTZUNGO “OLALDE” ALT-4 H.A.I.REN URBANIZAZIO PROIEKTUAN SARTUTAKO OBREN BURUTZAPENA jardunbide ireki bidez kontratatzeko espedientea eta administrazio-baldintza berezien pleguak onartzea erabaki zuen, eta baita esleipena egiteko jardunbidea martxan jartzea ere erabaki zuen.

Lizitazio honen iragarkia Oiartzungo udalaren kontratatuzailearen profilean eta 2011ko apirilaren 12an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Aipatu kontratazioan proposamenak aurkezteko epean bi enpresek aurkeztu dute proposamena, biak onartuak izan dira eta eskaintzak honako hauek dira:

<b>Enpresa</b>	<b>Eskaintzaren zenbatekoa (BEZ barne)</b>	<b>Burutzapen epea</b>
CONSTRUCCIONES GALDIANO SA	2.690.732,23 €	25 hilabete
CONSTRUCCIONES AMENABAR SA	2.690.732,18 €	25 hilabete

Kontratazio Mahaiak 2011ko irailaren 1ean egindako bilkuran aurkeztutako proposamenen balorazioa egin zuen eta aho batez kontratua CONSTRUCCIONES AMENABAR SA enpresari esleitzeko proposamena egin zuen.

OIARTZUNGO “OLALDE” ALT-4 H.A.I.REN URBANIZAZIO PROIEKTUAN SARTUTAKO OBREN BURUTZAPENA CONSTRUCCIONES AMENABAR SA enpresari esleitzea proposatzen da, zeinaren eskaintza 2.690.732,18 eurokoa (BEZ barne) eta burutzapen epea 25 hilabetekoa den, osotasunean interes publikoetarako abantaila gehien dituen eskaintza ekonomikoa dela iritzita, betiere pleguetan ezarritako esleipen-irizpideen arabera Kontratazio Mahaiak egindako eta espedientean jasota dauden balorazioetan oinarrituta. Horrenbestez, honako puntuazio hauek eman zaizkie aurkeztu diren lizitatzaileei, beherakor ordenatuta:

<b>Enpresa</b>	<b>1. Irizpidea Prezioa</b>	<b>2. Irizpidea Epea</b>	<b>3. Irizpidea Koordinazioa</b>	<b>4. Irizpidea Hobekuntzak</b>	<b>5. Irizpidea Pertsonala eta ekipoak</b>	<b>6. Irizpidea Obraren aztekerta</b>	<b>GUZTIRA</b>
1. CONSTRUCCIONES AMENABAR SA	40	10	21	1,50	5,75	2	80,25
2. CONSTRUCCIONES GALDIANO SA	40	10	16	4	6	1	77,00



Honako hauek dira CONSTRUCCIONES AMENABAR SA enpresak aurkeztutako proposamenaren ezaugarri eta abantaila erabakigarriak, eskaintzak onartu zaizkien aurkeztutako gainerako lizitatuzaileen aurrean haren eskaintza lehentasunez hautatua izateko: urbanizazio obren burutzapena babestutako etxebizitzaren eraikuntzarekin koordinatzeko egin duen proposamena onena da.

Horiek horrela, 2011ko irailaren 15ean Alkatearen 787 zk.ko Dekretu bidez OIARTZUNGO "OLALDE" ALT-4 H.A.I.REN URBANIZAZIO PROIEKTUAN SARTUTAKO OBREN BURUTZAPENA kontratatzekeo prozeduran proposamen ekonomiko onuragarriena CONSTRUCCIONES AMENABAR SA enpresarena zela erabaki zen.

Sektore Publikoaren Kontratazioa arautzen duen 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 135.2 artikularekin adostasunean hamar egun balioduneko epea eman zitzaion enpresari behin-betiko 114.014,07 euroko bermea eratzeko eta dokumentazioa aurkezteko, eta hala egin du CONSTRUCCIONES AMENABAR SA enpresak 2011ko irailaren 23an.

Horiek aurkeztuta, Legearen 135.3 artikularen arabera errekerimendua bete eta hurrengo bost egun baliodunen barruan egingo da esleipena.

Gaiaren inguruan Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenean jasotakoa aintzat hartuz eta baita Obrak eta Zerbitzuak Batzordeak dagokion diktamena, eta espedientea bideratzean aplikagarri diren legezko tramite guztiak bete direla kontuan izanik, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan Udaltzarak ondorengo erabakia hartzen du:

1. OIARTZUNGO "OLALDE" ALT-4 H.A.I.REN URBANIZAZIO PROIEKTUAN SARTUTAKO OBRAK BURUTZEKO kontratua CONSTRUCCIONES AMENABAR SA enpresari esleitzea, 2.690.732,18 euroko prezioarekin (BEZ barne) eta 25 hilabeteko burutzapen epearekin.

Ordainketa udal aurrekontuko 1 0301 600 439 00 03 (A 757-2011) diru-atalaren kargura egingo da.

CONSTRUCCIONES AMENABAR SA enpresak ez du banakako preziorik aurkeztu, beraz, administrazio-baldintza zehatzen agiriaren 3. klausulan ezarritakoarekin bat, OIartzungo Udalarenak oinarritzat hartzen dituela ulertzen da, baina lehiatzailearen prezio proposamenean jasotako beherako portzentaia kenduta.

2. CONSTRUCCIONES AMENABAR SA enpresak aurkeztu duen urbanizazio egitasmoaren azterketan ez ditu aipatu jarraian adierazten diren bi alorrak, eta hauek kontuan izan behar dira obrak burutzerakoan:

- Urbanizazio egitasmoa MEMORIA dokumentuko I. Eranskina – zoru kalitatea - ez da aipatzen proposamenean. Eranskinean egiten den zoru hondakinen kudeaketako behin betiko aurrekontua Eusko Jaurlaritzak zoru kalitatearen inguruko deklarazioa ematerakoan zehaztuko da. Zoru kalitatea bermatu bitartean ezingo da 20063-00138 kodeko eremuan lur mugimendurik hasi.
- ALT-4 sektorearen urbanizazioa aipatzen du baina ez da adierazten alorreko zati baten antolaketa Karrera erreka ubidearen hobekuntza dokumentuan jasoko denik.



Sektoreko zatia 3.1.1 planoan zehaztuta dago. Memoriaren 9. orrialdean honako azalpena ematen da “ toda referencia al río Karrika en los documentos memoria, planos y presupuesto no son vinculantes al actual proyecto.”

3. Kontratuaren formalizazioa esleipena jakinarazten denetik hurrengo hamabost egun baliodunetan egingo da.
4. Erabaki hau jakinaraztea enpresa esleipendunari eta gainerako enpresa eskaintzaileei.
5. Esleipen hau udalaren kontratatzaileen profilean argitaratzea.
6. CONSTRUCCIONES GALDIANO SA enpresari jarritako behin-behineko bermea itzultzea.”

Eta horrela jasota gera dadin dagokion espedientearen, ziurtagiri hau ematen da, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua arabera Alkate And.ren On-Iritziarekin batera, Oiartzunen, bi mila eta hamaikako irailaren hogeita bederatzian.

O.I.  
ALKATEAK,



